

Birusengatiko infekzioa

Aitatasunagatiko baimena

Sexuagatiko bereizkeria

Seme-alabak zaintzeagatiko lizentzia

Txertoagatiko adenitisa

Nekrosiagatiko hantura



Sarri erabiltzen da **-GATIKO**
atzizki konposatua; askotan,
beharrik gabe, ikusi ditugun
adibideetan bezala.

Halakoak, dena dela, modu natural eta egokiagoan eman daitezke. Hona aukera batzuk:

● Hitz-elkarketa:

- Sexu-bereizkeria

● Erlazio-atzizkiak:

- Aitatasuneko baimena

● Erlazio-izenondoak:

- Infekzio birala

● Bestelako egiturak:

- Seme-alabak zaintzeko lizentzia
- Txerto bidezko adenitisa
- Nekrosia eragiten duen hantura

Kasu batzuetan, **-GATIK** ordezkaezina da. Kausazko atzizkia ezinbestekoa denean, hobe da **[-GATIK + ezarritako + izena]** eta gisa horretako egiturak erabiltzea, **[-GATIKO + izena]** egitura erabiltzea baino. Adibidez:

[-GATIK+ ezarritako + izena]

Amatasun**agatik** eta jaiotz**agatik** zein adopzio**aga-**
tik ezarritako kenkariak.

[-GATIKO + izena]

?Amatasun**agatiko** eta jaiotz**agatiko** zein adopzio**agatiko**
kenkariak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Kutsu kausaleko esanahia beste modu askotara ere eman daiteke. Hona aukera gehiago:

-k eragindako:

Apoptosiak **eragindako** heriotza
?Apoptosi**g**atiko heriotza

-i dagokion:

Higiezinak besterentze**ari dagozkion** mozkin garbiak
?Higiezinak besterentze**ag**atiko mozkin garbiak

-(a)ren ondoriozko:

Iskemiaren ondoriozko entzefalomalazia
?Iskemiagatiko entzefalomalazia

Hitz-elkartea:

Eguzki-erretinitisa
?Eguzkiagatiko erretinitisa

Gramatikaren ikuspuntutik, zuzena da **–GATIKO** izenlagun gisa erabiltzea. Literaturan lekukotasunen bat aurkitu badaiteke ere, oso tradizio urria du:

Hona Leizarragaren adibide bat:

*Halakotz, nago rekerimenduz etzaitezten enoia
ene zueng**gatico** aflikzioneakgatik, zein baita
zuen gloria.*

Oraintsu arteko tradizioan, *-tzeagatiko* moldea, ordea, ez da aurkitzen:

? Bazkaltzera berandu **etortzeagatiko** zigorrak

Hauxe da, beraz, Euskara Zerbitzuaren estilo-gomendioa:

- Gramatikaren ikuspuntutik zuzena izan arren, **-GATIKO** atzizki konposatua ez erabiltzea.
- Zer esanik ez, beharrik ez dagoenean: halakoetan, baditugu euskaraz modu natural eta egokiagoak.
- **-GATIK** ordezkaezina denean ere, kutsu kausaleko esanahia bestela eman daiteke: **[-GATIK + ezarritako]**, **[-i dagokion +izena]** edo **[-(a)ren ondoriozko + izena]** egituren bidez, edota **hitz-elkarketa** erabiliz.